

En Lintzoain en la Casa Consistorial del Valle de Erro a siendo las 11,00 horas, del día 7 de marzo de 2016, se reunió el M. I. Ayuntamiento del Valle de Erro al objeto de celebrar sesión extraordinaria, en primera convocatoria, con la asistencia de los Sres. Concejales, D. Jesús Esteban Juanarena Apesteguia, D. Álvaro Villanueva Azcarate, Dña. Sonia Iriarte Gil, D. Joseba Martinez Rey y D. Joaquín María Martínez Choperena, bajo la presidencia del Sr. Alcalde D. Enrique Garrada Erro, asistiendo como Secretaria la de la Corporación Dña. Marisol Ezcurra Iurre. Excusa su asistencia el concejal Sr. Miguel Echamendi Hernández.

1º.- APROBACION MODIFICACION PLAN FINANCIERO DE LAS OBRAS DE ABASTECIMIENTO EN ALTA EN AINTZIOA

1.- APROBACION PLAN FINANCIERO DEL PROYECTO MEJORA RED ABASTECIMIENTO EN ALTA (Solución Aintzinoa-Loizu)

Toma la palabra el alcalde Sr. Garralda que informa de las modificaciones que respecto al proyecto de *Adecuación de la captación del manantial de Loizu y Abastecimiento en Alta en Aintzinoa y Loizu (Valle de Erro*, se han tenido que llevar a cabo tras requerimiento y conversación mantenida con el instructor de este expediente Sr. Carlos Oroz del Gobierno de Navarra, ya que la base auxiliable objeto de la subvención es menor y también es menor el tanto por ciento aplicable de subvención que pasa del 90% al 80%. Debiendo por ese motivo proceder tano a la modificación del proyecto como del plan financiero que se presento en su día.

Debatido el asunto se acuerda por unanimidad, aprobar el siguiente plan financiero:

“1.-Aprobar la modificación del proyecto de Adecuación de la captación del manantial de Loizu y Abastecimiento en Alta en Aintzinoa y Loizu (Valle de Erro)

2.-Aprobar el siguiente plan de viabilidad económica de dichas obras:

GASTOS:

<i>Presupuesto para conocimiento de la administración.....</i>	238.363,24 €
<i>Abastecimiento en alta Aintzinoa</i>	204.944,72 €
<i>Mejoras Loizu y captación</i>	33.418,52 €

INGRESOS:

<i>Subvención Gobierno de Navarra (80%).....</i>	163.955,77 €
<i>Remanente de tesorería.....</i>	74.407,47 €
<i>Total ingresos.....</i>	238.363,24 €

3.- *Asumir el compromiso de ejecutar dichas obras en los plazos señalados en la Ley Foral que regula las medidas de ordenación e impulso del vigente Plan de Inversiones Locales 2009-2012 “*

2º.- APROBACION DOCUMENTO CORREGIDO DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE PROMOVIDA POR BERNARDO URTASUN URRUTIA EN AURIZBERRI-ESPINAL

Retomando nuevamente este asunto y con el fin de responder en su totalidad al escrito recibido por el Servicio de Ordenación del Territorio y poder aprobar definitivamente la modificación, se presenta de nuevo por Ana Almirantearena redactora del proyecto de la mencionada modificación, documento que mejora la ordenación pormenoriza sugerida por los técnicos.

Revisado el mismo, la Corporación se da por enterada da su visto bueno y acuerda por unanimidad:

1º.- Aprobar el documento de fecha febrero de 2016 redactado por ARQ Arquitectos (Ana Almirantearena y Pedro Ansa) que contesta al requerimiento formulado por el Gobierno de Navarra.

2º.- Dar traslado del presente acuerdo y del mencionado documento debidamente diligenciado al Servicio de Ordenación del Territorio y Urbanismo del Gobierno de Navarra.

Y sin más asuntos que tratar siendo las 11,25 horas del mismo día se levantó la sesión de lo que doy fe.

Lintzoainen, Erroibarko udaletxean, 2016ko martxoaren 7ko 11,00etan, Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, lehen deialdian; bertaratu ziren zinegotziak: Jesús Esteban Juanarena Apestegui, Álvaro Villanueva Azcarate, Sonia Iriarte Gil , Joseba Martinez Rey eta Joaquín María Martínez Choperena, alkatea, Enrique Garrada Erro jn.,bilkura-buru izan da, eta udalbatzako idazkari lanetan Marisol Ezcurra Irure, aritu da.

Miguel Echamendi Hernández zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.- AINTZIOAN UR-HORNIDURARAKO LANAK EGITEKO FINANTZA PLANA ALDATZEKO ONESPENA

Alkateak, Garralda jnk., hitza hartu du eta jakinarazi du *Loizuko iturritik ura hartzeko sistema eta Aintzioa eta Loizuko ur-hornidura hobetzeko* proiektuari dagokionez, aldaketak egin behar izan direla, espedientea kudeatzen duen Nafarroako Gobernuko Carlos Orozek egindako eskaeren ondotik, diru-laguntza jasotzen duen zatia txikiagoa baita eta aplikatuko den diru-laguntzaren

ehunekoa ere txikiagoa delako, %90tik %80ra jaitsiz. Hortaz, proiektua eta aurkeztutako finantza-plana aldatu behar dira.

Gaia eztabaidatu ondoren erabaki da aho batez finantza-plan hau onartzea:

1.- Loizuko iturritik ura hartzeko sistema eta Aintzioa eta Loizuko (Erroibar) ur-hornidura hobetzeko proiektuaren aldaketa onartzea.

2.- Lan horien bideragarritasun ekonomikoaren plan hau onartzea:

Gastuak:

Administrazioaren ezagumendurako aurrekontua.....	238.363,24 €
Aintzioako hornidura.....	204.944,72 €
Loizuko hobekuntzak eta hargunea.....	33.418,52 €

DIRU-SARRERAK:

Nafarroako Gobernuko diru-laguntza (%80).....	163.955,77 €
Diruzaintzaren soberakina.....	74.407,47 €
Diru-sarrerak guztira.....	238.363,24 €

3.- Lan horiek indarrean dagoen 2009-2012 Tokiko Inbertsioen Plana antolatu eta bultzatzeko arauak biltzen dituen Foru Legean ezarritako epeetan egitea.

2.- AURIZBERRIN BERNARDO URTASUN URRUTIAK SUSTATU DUEN EGITURAZKO ALDAKETAREN DOKUMENTU ZUZENDUAREN ONESPENA.

Gaiari berriko ekin zaio Lurraldearen Antolakuntzako Zerbitzuak bidalitako idazkiari erantzuteko eta aldaketa behin betiko onartu ahal izateko; aldaketaren proiektua egin zuenak, Ana Almirantearenak, teknikariek proposatu zuten antolaketa xehatua hobetzen duen dokumentua aurkeztu du.

Hori aztertuta, Udalbatza jakitun da, oniritzia eman dio eta erabaki du aho batez:

1.- 2016ko otsailean ARQ Arkitektoak (Ana Almirantearena eta Pedro Ansa) prestatutako dokumentua onartzea, Nafarroako Gobernuak egindako errekerimenduari erantzuteko.

2.- Erabaki honen berri eta aipatutako dokumentuaren berri Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Antolakuntzako eta Hirigintzako Zerbitzuari ematea.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez, bilkurari bukaera eman zaio 11,25ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.